



Iñaxi Etxabe Olidenek Basarriri erantzunez jarritako bertsoak dira hauek. 1955eko azaroan argitaratu ziren Anaitasuna aldizkarian.

BASARRIRI ERANTZUNA

Basarri jauna, zuk badaukazu
aiton bat maite dezuna,
zeuk diozunez berakin oso
sarri tratatzen dezuna
eta zuk ontzat ematen dezu
harek esaten dizuna.
Irakurrita daukat nik ondo
bertsotan jarri dezuna.
Hamen dihoakizu, ba, orain
neskatx baten erantzuna.

Emakumeak utzi gaituzu
oso okertzat hartuta,
munduan diran zorigaitz danak
gure lepora botata.
Gizasemiak ote daukazu
oso santutzat hartuta?
Gai honen kontra zer esanikan
etzait neri orain falta,
**BIHOTZA NOLA JARRIA OSO
DAUKATEN MINBERATUTA!**

Bizio txarrik asko badago
gizasemien artian,
begiratzia nahikoa dezu
auzo-taberna atian;
egunero han ikusten dira
pozik asko zurrutian,
jakinagatik hori dutela
bere buruen kaltian.
Ez dira hala ere geldituko
patrikak hustu artian.

Igande goiza etorri eta
beti gauza bat buruan:
denborik ezin pasa degu-ta
aurrera "txikiteuan".
Eguerdirako jarriko dira
ganberruaren moduan;
hizkuntza ederrik entzungo dezu
gero beren inguruan.
Nik ezin neurtu ohitura horrek
ze kalte egiten dituan.

Nobelak ere ikusten dira
gaur askotxoren eskutan,
esango nuke emakumeak
aina badirala hontan;
zenbat gastatzen duten ez jakin
zigarro eta zinetan;
jokuan berriz zer esanik ez
taberna eta plazetan.
Miseriarik ez da faltatzen
gero fameli askotan.

Noranahi jua nahi dutenian
ez dute falta dirurik;
emakumeak ibili behar
zorrak ordaindu ezinik.
Etxian falta dan gauzogatik
ez dutelako ajolik.
NESKATXAK!, garai datorrenian
ez galdu zuen zentzunik,
horrelako bat lagun hartuta
ez dagolako gauz onik!

Oikinako neska (**Iñaxi Etxabe Oliden**)
Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa
Grafia eguneratu egin dugu.